

## AZAROAREN 12: ITUNPEKO IRAKASKUNTZAREN GREBA



ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuok, sektoreko langileen lan baldintzak homologatzeko akordio berri baten negoziazioa aldarrikatzen dugu. 2008 eta 2009 negoziazio kolektiborako lehentasunezko helburuak honako hauek dira: irakasle eta ez-irakasle den langilegoa %100-ra homologatzea, %95-ko soldatzen parekatzea gainditzea, irakaslegoaren lan jardunaldia murriztea eta irakasle ez den eta Haur Hezkuntzako 1go zikloko langilegoaren soldata eta lan baldintzen homologazioa.

Hiru sindikatuok helburu hauek lortzeko Administrazioaren parte hartzea beharrezkoa dela, eta baita ere finantziario eredu berri honen finkapenean zeintzuk diren ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak eta kontrola egiteko moduak argi geratu behar direla pentsatzen dugu. Dirudienez, finantziario eredu berri honetarako patronalekoek dituzten eskaeren zati bat onartzeko Administrazioa prest egon

daiteke. Soldataren homologazioan dagoen %95-ko muga apurtzea ez oomen da haintzat hartzen. Administrazioaren erantzuna langileoi dagozkigun gaiak tratatzeko eta ezagutzeko sindikatuok egin ditugun eskaerei honakoa izan da: **“Gai hori patronalarekin tratatuko dugu, ez sindikatuekin”**.

Administrazioak alde soziala ez du kontutan hartzen. Patronala prest egon daiteke akordio bat izenpetzeko langileen aldarrikapenei kasu egin gabe? **Hau gertatuko balitz, beraien erantzukizuna oso larria izango litzateke.**

Une larrian gaude. Gauden egoera, baita administrazioak eta patronalak erakusten dituzten jarrerak eta planteamenduak ere, erantzun sendoa ematea eskatzen dute.

Itunpeko irakaskuntzako langileen lan baldintzetan eragin handia izango duten erabaki politikoak hartzen ari dira, homologazioa, ihardunaldi murrizketak,...eta **EZ GAITUZTE KONTUTAN HARTZEN!**

- Irakasle eta ez-irakasle langilegoaren homologazioaren alde.
- 2008eko hitzarmenean soldata parekidetasunaren %95ko topea gainditzearen alde.
- Jardunaldiaren murrizketaren alde.
- Ratioak eta gainontzeko lan baldintzen hobekuntzaren alde.

Eta batez ere:

- Itunpeko irakaskuntza finantziatzeko eredu berrian **SEKTORE HONETAKO LANGILEGOAREN INTERESAK**

**BAZTERTURIK EZ IZATEKO**

### AZAROAREN 12AN MOBILIZA ZAITEZ

- **ASANBLADETAN PARTE HARTU**
- **EGIN GREBA**
- **ETOR ZAITEZ BILBOKO MANIFESTAZIORA, 11:30ETAN GUGGENHEIMEN**

